

dantzaac , ta beste olgueeta itchusi
lotsarizcuac , Jaungoicuaren Ciuda-
deco Liburuban San Agustinec di-
nuan leguez. Oneec dira , araco ar-
daoico, odolezco , ta luxuriya utsez-
co gentilen olgueeta loijac , ta guiza-
tasunaren desondragarrijac , zeintzu-
betan guizonac , piestia eguiteco, pe-
lietan cirian Artzaquin , Otsoaquin,
ta Tigreequin , alcar ill artian.

Apostolu Santubac Evangelijua pre-
diqueetara zabaldu cirianian, Israael-
go , ta Judeaco Erreinu chiqui bijac
ichita, beste mundu guztia zan gen-
tileena. Olgueeta odoltsubaquin , lu-
xurijotsubaquin , ta ardaotsubaquin
Jaungoico paltso asco , Marte, Jupi-
ter , Baco , Venus , ta beste milla
gauza loi Jaungoicotzat adoreetan ci-
tubeenena. Marte guerraguina ondree-

149

taco: guizonac pelietan cirian alcat
ill artian ezpataca alcatregaz; edo ot-
suaquin; ta artzaquin; batzubac ill
artian. Baco ardao guina ondreeta-
co: guizonac; eta emacumiac maats
mordotz; ta pampanuz jantzita, or-
dituta ibiltan cirian dantzan naaste
plazatic plaza; caleric cale. Venus
loija ondreeta-co: Guizon, ta emacume
ordituta; biloxic ibiltan cirian naas-
te; guztien aguirijan dantzan; ta
edocein gauza loi eguiten. Ta onan
beste Jaungoico paitso eguneeian. Au-
zan gentileen sinistutia; ta erligino-
ia. Onan topau even Apostolu San-
tubac munduba.

Apostolubac; gentil asco viurtu,
edo écarri arren Evangelijoco sinis-
tute; ta legue garbira, ta zucnena,
gueratuten cirian cristinau barrijac

getileen artian. Esateco moduban: Erri-
 baten beegozan berreun, edo irureun
 cristnau barri; beste bost eun, edo
 seireun gentilac cirian. Evgangelijo San-
 tura viurtu ez cirianac. Ercen Jaun-
 goico paltso eguneetan, leenago le-
 guez, olgueeta ardaotsubac, loijac,
 ta odoltsubac euqueezanac. Au era-
 custen deuscubee mundu guztico ja-
 zuac. Ta au berau iracurten dogu
 gueure Espafiacuetan. Evgangelijo San-
 tubac, ta Eleisa Ama Santiaren Or-
 denaac eragozten cutseen cristinau bar-
 rijai, gentileen diversinoetara juatia.
 Ta aguindu eutseen devocinoe Santu
 bategaz, ta espiritu egijazcuagaz on-
 drau eguijeezala Jesucristo, gueure
 Jaunaren, Ama Virgina guztiz San-
 tiaren, Apostolu Santubeen, ta Mar-
 tirijeen egunac, Cerubari gracijac e-

144

monagaz, ta caridadezco, ta onestidadezco, alegrija santa bategaz, gentileen itsutasuneetati, ta pecatubee-tati Jesucristoc librau zitubaco. Anonan Eleisiac aguinduta, egon arren; Cristinau barri guztia ez cirian Santubac. Gusteetan jacuezan sabelaren, ta araguijaren eraco olgueetac. Ta icusteen citubeen leguez Cristinau-barriac, eureen senidiac, auzuac, ta erritar gentilac Jaungoico paltso egunectan olgueetan nasai, eurac bere asi cirian, euren santu egunectan Eleisaan Santubac ondrauta, Eleiscua eguinda guero, plazaan gentileen olgueetac eguiten. Onaco gueure santu egunetaco olgueetac, gurasuetati umeetara, guiza alderic guiza aldira eldu dira gueure demporaraguino. Ara emen gueure errijectaco zece-

neen, ezpata dantzeeen, desapijotzo
burruqueen; maquilaqueen, ezpata-
queen, comedijeen, dantzeeen, ta con-
vidau teguijeen sartu eria, edo etorri
eria cristandadera:

Au gaiti esaten deutsee Eleisiaren
Gurasuac verbaoro gure Errijeetaco
Cecenai, dantzai, ta comedijai: Gen-
tilidadiaren zatijac, reliquijac, edo
ondoquinac, *Idolatrijac*, Jaungoico-
ucazalliac. Guerra guinac bere gueith
ditubee Comedijac, dantzaac, ta ol-
gheeta pecatuzenac. Soldau aldraac
sartuten cirian ezpata odoltsubaquin
errijeetan, ta cirian leguez, gueijee-
nac gente guztiz nasaija, eureen gus-
to guztiaac escatuten citubeen gau,
ta egun. Areetati naijeen eveenazan
Comedija, Sarauba, naasteco dant-
zia, ceindan luxurijaren Ama. Onan

146

etorri da, ta zabaldu da cristinau erri-
jeetan, diabrubac gentileen artian e-
rein evan azi impamiaren prutu ma-
daricatuba dantza desonestu orreetan.

Icusi ezquero, ce asi era ondrau-
ba dauqueen naasteco dantzaac, ta
celan zabaldu dirian cristandadian,
esan biar da: ¿Cegaiti quenduten ez-
dirian? Esaten da bada: I. Eleisia-
ren batzarrac, Eracusla Santubac, ta
Cristandadeco Erregue Jaun ascoren
(baita Gentileenac bere batzuc) or-
denaac, eguin daveela aleguina, er-
rijeetati dantza galdubac quenduteco.
Iracurri bediz San Carlos, Milango
Obispo Jauna, Francisco Geneto,
Obispo Jauna, ta beste, casic edo-
cein penseeta oneco Eracusla, ta
eurac esango davee: ceimbat aleguin
eguindan guiza aldi guztietan, dant-

za naastaubac condeneetaco. II. Ez
 Obispoc, ez Curac, ez Erreguec, ez
 Juecec ez deutsa inori aguinduten,
 ez piestara Juateco, ez naasteco dant-
 zaan sartuteco. Ez da inor carcelara
 eruaten, ez multetean, dantzari eguin
 ezdavelaco. Eleisiaren Burubac, ta
 Erregue Jaunac asco estimaucó leu-
 quee, cristinaubac Jaungoicuaren vil-
 dur santuba gaiti, ta egun aretaco
 castu alperricacuac gaiti, dantza or-
 reetati, ta arimac galduteco piesta
 orreetati alde eguitia. III. Erregue
 Jaunac, ta Legueguinac ichi leguijue
 errijetaco gentiari, piestaac, ta dant-
 zaac eguiten, pecatu diriana, eurac
 jaquin arten, eurac pecaturic eguin
 bagatic, dino Santo Tomasec (1).Gauza

(1) *De Regim. Princip. l. 4. c. 12.*

148

bat da, pecatu eguiteco aguindutia;
 ta beste bat da, guztia erremedijau,
 ezin danian, pecatu eguiten istia. Pe-
 catu eguiteco aguindutia, guztientzat, ta
 beti da pecatu. Pecatu eguiten istia,
 gueijago ezin danian, ezda pecatu.
 Munducuac ezin erremedijau legui-
 jeez pecatu guztia. Orregaiti Erre-
 gue Jaunac, ta Legueguinac, daqui-
 jeela, pecatu ascori jazoten isteen
 deutsee (1).

Moisec emon eutseen libertadia
 Judegubai, leleengo emaztiari ichita,
 beste bategaz ezconduteco (2). Baita
 campotarraiz logrerijan autraz cerbait

(1) *D. Tom. 22. Q. 78. A. 1.* (2) *Deu-
 tor. 24.*

presteetaco bere (1). Legueguinac par-
catu leguijee , emacume galdubac eu-
rcen tratu chaarrian vitzi izateco eche
jaquina , ta aguirija (2). Baita co-
medijac eguiteco licencia emon bere,
opicio impamia , ta pecatuzcua izan
arren (3). Alaco gauzaac pecatu di-
riana jaquin arren , jazoten isteen
deutsee Legueguinac , eurac pecatu
eguin bagaric. Baquijee cristandadeo
Aguintari Jaunac , lecuban lecuban
dagozana nasaijac, Jaungoicuaren bil-
dur bagacuac, Ceruba galdubac, edo

(1) *Ibid.* 23. (2) *D. Tom.* 22. q.
10. a. 11. (3) *Decr. Phil. V. Ar-*
viol. Estragos de la luxuria.

150

irabatziñac penaric emoten ez deutenac, odolaren, ta arguijaren artian loituta vitzi gura daveenac; ta asco izan arren ceruraco deitubac, guichi-izango diriala ceruracuac.

Au beran jazoten da bada gueurre errijeetaco piesta, ta dantza naas-
maubaquin. Ezdira quenduten: ta ezdira obaago, quenduten ezdirialaco. Ezpabere, esan eguidazu: ¿Noc gutiz quendu leguiz, edo quenduco ditugueure placeetaco dantza lotsagarri-
jac? ¿Edo noc dauca obligacinoia quenduteco, ain chaarrac izan arren? Obispo Jaunac, Cura Jaunac, Predicadoriac, ta Compesoriac, ascoc aleguina eguindavee, ta eguiten davee quenduteco, baina ezin quendu ditubee. Erregue Jaunac, ta Legue-
guinac eracutsi davee eureen voron-

datia (1) ; ta gueijago cereguin ez-
 danquee , Santo Tomasegaz esan di-
 rian errazoiac gaiti. Urijeetaco Alcate
 Jaunac , ta Errijetaco Piel Jaunac
 nai balebee bere , quendu ezin le-
 guijeez , Urijac , edo errijac nai ez-
 davela , sarritan icusidogun leguez,
 ¿Noc ditu bada guztiz quendutecuaç?
 ¿Nai dozu , Jaungoicua etorri da-
 quizun dantza zale bacochari esatera:
 dantza orreeç pecatuzcuac diriala , ta
 ez juateco? ¿Edo naidozu , Cerubac
 gorroto deutseen seinale batzuc emon
 daguizuzan? Iracurri eguizuz bada
 Benedicto XIV. Marcancio , Seineri,
 Looner , Valero , ta beste edoccin

(1) Pontas. V. Saltatio.

153

Eracusla, dantceen gainian pusca bat
 sustraiz verba eguiten davecnac. A-
 reetan icusico dozu, ceimbat casti-
 guñicaragarri eguin dituban Cerubac
 guiza aldi ascotan, ta casic Erreinu
 guztietan, pecatuzco dantza, ta ol-
 gueeta madaricatu orretati cristinau-
 bac aparteetaco. ¿Ta quendu ditu guz-
 tiz? Ez por cierto. Castigubaren tru-
 moc aldi ja irago dedinian, nasaijac,
 ta desonestubac leengo pecatubee-
 tara.

¿Noc ditu bada guztiz quendu-
 tecuac? Ciudadiac, Urijac, eta Er-
 rijac quendu leguijez euren luurre-
 cuac, gura balebee. Ezdau cristan-
 dadeco Legueguinec ez Uriric, ez
 Ciudaderic, ez Erriric castigueetan,
 bere luurreco dantza nastecuac quen-
 du ditubalaco. Erege batec, edo ateista

batec castigau legui, Prancesac eguin daveen leguez. Baina ez parte oneco Aguintaric. Alan, errico gentiac gura balebee, quendu leguijecz guztiz eurren erricuac, eta luur barrucuac. Quendu biar ditubeen, edo, ez, eurar jaquingo davee. ¿Baina nos gura izandavee Uri bateco, edo Erri bateco auzo, edo vecino guztia, eurren errico dantza naastaubac, eta pecatuzcuac guztiz quendutia? Auzo batzuc beti. Beste batzuc inos bere ez. Batzuc esaten badabee : ezdala eguin biar pecatuzco dantza, edo piesta nasairic; beste batzuc dinueleen bere eguiten ciriala, ta orain bere eguin biar diriala. Jaguiten da auzi bat erricuen eurren artian. Juaten dira Juez nausijagua gana, ta esaten dau ac errico baquia gaiti:

154

Ureetan dana, eguin dedilla. Ara emen, dantza zaleen gau, ta egun piesta galduco, edo dantza nasaijeetaco, eurarac esan oidaveen, libertadia, edo licencijsa. Sarritan au jazo da guere errijeetan. Ta gueratu dira dantza desonestubac leengo tercijuan, Aguintarijac erruric ezdauqueela.

Emeti ezaututen da, cegaiti quenduten ezdirian naasteco dantzaac, pecatuzcuac izan arren. Deungaac dira, ta quenduten ezdira. Ta quendu ez arren, ezda pecatu chiquijagua, daquijala, dantza areetara jua-tia. Quendu ezac ezditu guichituten, ez chiquituten naaste impame ataco pecatubac.

Alperric da bada esatia : *¿cetaco dantzaac guztiz quenduten ezdira, ain deungaac badira?* Ez dira quenduten,

ta echurja daucanez, quenduco bere
ez dira guztiz. Ta orregaiti bapere
obaac ezdira. Beste modu baten quen-
du leguiz guztiz. Ta chito errazto.
¿ Celan? *Juan ezagaz*, Inor juaten
ezbada, quenduta dagoz. Ascorent-
zat quenduta dagoz. Bestiac bere juan
ezagaz quendu leguijez. Ta au esa-
ten jacue cristinaubai, eguin biar
daveela, pecatu mortalaren beian,

§. II.

*II. Santo Tomasec dino: Dantzari
eguitia berez ez dala pecatu.*

Bigarren lecuban Santo Tomas,
Eleisiaren Eracusla Andia dacarree
testigutzat dantzarijac, eureen olgue-
eta nasaijac oinian euquiteco. San-
tu Gloriosua aotan artuta, coipaatu,

156

ta leundu gura lituquee dantza de-
sonestubac , leen dirian baino guei-
jago. Santo Tomasec , ta beste jui-
cijua dauqueen guztia , esaten da-
vee , dantzan eguitia berez pecatu
ezdana. ¿ Ta cer daucagu onegaz ?
¿ Placeetaco , erromedijeetaco , bigui-
reetaco , ta Saraubeetaco dantza , leen
icentaubac pecatu ezdiriala ? Au ez.
Errezago da , Ceruba luurragaz batuten ,
oneec bijot bat eguiten baino. San-
to Tomasec dino : (1) canta onestu-
bagaz , soinu onestubagaz , ta egui-
tade indecente bagaric , ta beste o-
nestidadia ezaindu leguijan gauza ba-
garic ; persona eldubac , ta modes-

(1) *In Isai. c. 3.*

tijazcuac aparteco motivo andi bate-
 gaz, dantzán eguitia, ezdala pecatu.
 Baina sartuten bada, edo naasteetan
 bada indecencijazco gauzarie danzaan,
 gauza jaquina dala, pecatu dana. Au,
 ta gueijago escatuten dau Santubac,
 dantzia pecatu ez izateco, *et si quæ
 hujus modi* esanagaz. Beguiratu be-
 quijo bada verbeeta oni, ta orracó
 placeetaco, erromedijeetaco, biguiree-
 taco, ta saraubeetaco dantza ederroi
 bere bai leleengoti azquenera. Ta be-
 tor nai davena; ya alcarregaz bat
 eguin aldaguizan, icusten. Bat eguin
 albadaiz Cristo, ta diabrubá, gracia,
 ta pecatuba, gava, ta eguna, ones-
 tidadia, ta desonestidadia, castida-
 dia, ta luxuriá; Santo Tomasén esana
 bere bat eguingo dau, esan dirian
 dantceequin.

158

Dantzari eguitia berez pecatu ez-
da; baina eguiten dan, ta useetan-
dan moduban eguitia, pecatu mor-
taleco ocasinoe urrecua da. Orregaiti
Santo Tomasec esatendau ainbeste le-
cutan, ta beti : alaco ocasinoera
juatia pecatu dala (1). Dantzia peca-
tu eguiteco ocasinoia bada, dantzara
juatia pecatu dala.... Domeecan dant-
zan eguitia, soluan nabasen eguitia
baino, pecatu andijagua dala.....

Eguin bedi bada dantzari, eguin
biar bada. Loitu bediz gorputzac, ta
condenau bitez arimac; dantzaarijac
alan gura badavee. Baina ez bedi se-

(1) 22. q. 43. a. 1. ad 4. a. 7.
q. 122. a. 4. ad 3....

eula hotan artu Santo Tomas, Esco-
leetaco Aingueruba, ta virginidadiaren
mirarizco Ispilluba, gueure Errijee-
taco dantza nasaijac, ta desonestubac
ontzat emoteco.

§. III.

*III. San Francisco Salesec Phi-
loteari ez eutsan guztiz eragotzi
dantzan eguitia.*

Irugarren lecuban dinue dantza za-
liac; San Francisco Salesec ez eut-
sala Philoteari guztiz eragotzi dant-
zan eguitia. Ezin esan guinai, San-
tubac emongo eutsala libertadia, pe-
catu eguiteco. Begaz ezda pecatu, dant-
zan eguitia San Francisco Salesen eri-

166

ehijan. Auda, Santu andi à ganic dant-
 zaarijac ateraten daveen contuba. Ta
 onan javonau gura lituquee dantza im-
 pamiac, Santubac eracutsijac, ta ont-
 zat etmonac balira leguez. Onei esa-
 ten jacue: itsututa ezbadagoz, iracurri
 daguijeela Santuba bera. Berac dino:
 "Dantzan eguitia berez pecatu ez-
 »dala.....Dantzaric oneenac bere tutsa
 »baliño daveela..... Eguiten dirian mo-
 »duban, gauza chaarren, ta pecatu-
 »baren entero urrecuac diriala; ta
 »orregaiti arriscu, ta peligru andicuac
 »diriala.....Dantzara duazanac alcar-
 »ren propijan vanidadez duazala. Va-
 »nidade atati urteten daveela maite-
 »querija chaarrac, ta peligruzco ca-
 »rinuac. Basoco suga, ta pristija ve-
 »nenotsubac oinduari verenua ezarten
 »deutseen leguez; dantzarijac albo-

» cuari belarrijan esaten deutzazan ver-
 » ba desonestubac , veguiracune mai-
 » tiac , ta escucaloijac , sartuten deut-
 » seela vijotzian pecatubaren verenua.
 » ¿Noc ezdaqui, orduban vijotza pres-
 » tauta daguaña, pecatuban jausteco,
 » pecatubari obeiduteco , ta verenua-
 » gaz ilteco?

» Dantzan eguizu bada guichi, ta
 » guichitan, Philotea...ta orduban ondo
 » prestanta. ¿Baina celan prestanta?
 » Modestijaz , juicijoz , ta intencinoë
 » onagaz (1).«

Au guzikau da San Francisco Sa-
 lesena. Ta oraindino gueijago Santu
 L

—————
 A...

(1) *Introd. á la vid deo. p. 3.*
 a. 32.

andijac, ta garbijac dantziac gachi
 eguin ezdagijon. ¿Baina cer |gueijago?
 Pensau gauza batzuc. ¿Baina cer pen-
 sau? Ara beraren verbaaci: "Pensau
 »eguiu leleengo: Zu dantzan cen-
 »bizan artian, ceimbat arima imper-
 »nuban erreetan egongo dirian, dant-
 »zan, ta dantzia zala medijo eguin
 »zituben peccatubac gaiti. Pensau e-
 »guizu bigarrenian: Ceimbat Praile,
 »ta cristinau on egozan orduban Jaun-
 »goicua alaveetan. ¡Oh, ce obeto
 »eguin daveen areec, zuc baino!
 »Pensau eguiu irugarrenian: Zuc
 »dantzan eguin dozun artian, ceim-
 »bat illda beste mundura juan di-
 »rian. Ceimbat ospitaleetan padeci-
 »duten egon dirian.....¡Ah, tristiciac!
 "¿Ez zara erruquituten areequin?
 »¿Derichazu, ezdozula negar eguingo,

»areec leguez, egunen baten beste
 »batzuc dantzan dāviltzarian? Pen-
 »sau eguizu laugarrenian: Jesusec,
 »Ama virginia, Ainguerubac, ta
 »Santubac icusi zaitubeela, dantzan.
 »Duda bagaric lastima izan deutsu-
 »bee, icusita zure vijotza ain gogoz,
 »ta zur alaco zorāquerijan, ta ton-
 »taquerijan. Pensau eguizu bostgarre-
 »nian: ¡Ai nire tristia! Dantzan ibili
 »nasaneco demporia juanjat. Erijotzia
 »leen baino utrago daucat.....Bere
 »dantzara dei eguiten deust onec. Ordu-
 »co soinuba izango da nire zuzpiru-
 »ba. Ta orduco dantziaren azque-
 »neco giria vitzitzati eternidadera.
 »Onec imini deutsudaz, pensau
 »daizuzan. Baina, (Jaungoicuaren
 »vildurric badago zugar) berac ecar-
 »rico deutsuz beste pensauquizun

La

164

batzuc ataraco (1).^o Ara emen San
 Francisco Salesec Philoteari emon eut-
 san, dantzan eguiteco, licencia. Zo-
 raquerijac, tontaquerijac, necedadiac,
 arriscu andicuac, peligru andicuac,
 beti gauza chaarretacuac, vanidadez-
 cuac, vijotzaren verenezco illgarrijac,
 ta oneenac bere, bapere valijo ez da-
 veenac, diriala dantzaac, dino San-
 tubac. Modestijaz, errespetoz, juici-
 jotz, intencinoë onagaz, ta moribua-
 gaz guichitan, ta guichi dantzan egui-
 teco, esaten deutsa San Francisco
 Salesec Philoteari. Ta eguiten daven
 banacaan, ésan dirian bost gauzaac,
 ta gueijago penseetaco, dantzeetaco

(1) *Ut. supr.*

165.

verenuac ill ezdaguijan. Au dino San-
tu Andijac, icentau dan capituluban,
ta aren urteenguan. Ta oraindino
puscabat estuchubago laugarren par-
teco seigarren capituluban, nun con-
deneetan dituban Santubac pecatuzat,
emen esan dirian baino echura ari-
nagoco, ta chiquijagoco paltaac bere.
Eguin bequijo bada ondria Eleisia-
ren Santu, ta Obispo Andijari. Ta
ez bedi aotan artu, dantza pecatuz-
cuac ontzat emoteco.

§. IV.

IV. Abadiac, eta Prailiac bere
juaten dira piestara.... Chaarrac balira
ez litzaatequez juango.

Laugarren lecuban dinue dantzaa-

166

rijac : Abadiac , eta Prailiac bere
juaten diriala dantcetara; Saraube-
tan dantzari bere eguiten daveela
batzuc; chaarrac balira , Sacerdote
Jaunac ez leuqueela eguingo.....

Erantzuten jacue : Abade bat,
nai Praile bat juan leitequiala (edo
juan biar davela) piesta egunian,
piesta eguiten dan lecura , edo ser-
moia eguitera , edo mecia esatera, edo
meciari lagundutera , edo beste jago-
can , biar bat eguitera. Ta , baita e-
gun atan gueratu bere estadubari
jagocan echian , ta lagunaquin. A-
bade batec , edo Praile batec pies-
ta egunian au eguiten davelaco, inor
escandalizetan bada ; Parisijuen es-
candaluba da. Ta ezdau mercedu-
ten casuric eguitia.

Ezdogu ori gaiti esaten , dinue

dantzarijac. Ezbada , Abadiac , eta Prailiac piestara juan da , gente artian sartuta , guen leguez , olgucetan bertan , ta arutz , ta onutz icusten ditugulaco. Oni erantzuten jaco : Ezdiriala guztia izango. Ezda guichia-go , ta guichiago bere. Batzuc eguiten daveena , ezdala guztia gaiti esanbiar. Judasec Jesus saldu evalaco , ezda esaten Apostolubac saldu eveela ; ez bada Apostolu batec saldu evala ; edo Judasec saldu evala. Bigarrenian erantzuten jacue : Abadiac , eta Prailiac bere pecatu eguin leguijeela. Abadentzat , ta Prailentzat bere baguala impernuba , guisqui eguiten badabee , ta escandaluba emoten badabee , beste edocein pecatarirentzat leguez. Abitubac soinian jancijac , ta sotania iminita , coroia edeguijac sal-

168

vaucó baguinduz, ondo guengoquez
Prailioc, eta Abadioc. Baina ez. Gueu-
re estadu santuco, ta altuco cer egui-
nac gordiac salvau biarco gaitu ce-
ruco gracijagaz.

Irugarrenian erantzuten jacue: E-
sandirian dantzaac, ta piestac, bes-
tenzat libre balira bere, Abadent-
zat, ta Prailentzat pecatu diriala.
Ezda errez sinistuten, Sacerdote Jau-
nac, ta religiosuac, eureen estadu
santubagaz aaztuta (gentiac esaten
daven leguez, ta sarritan arpegui-
jan ezarten deutcun leguez) sarau-
beetan dantzan eguiten daveela. Ta
ezda, orracó, esandirian, piesteta-
ra, ta erromedijeetara juanda, gui-
zon, ta emacumen artian, nesca, ta
mutilen artian paastian sartuta, ol-
gueetan ibiltan diriana bere. Emen

egon leiteque engainu andija Eleiza
 guizonen cleitu onaren caltlan. Dant-
 za zaliac lagunac gura ditubee. Ta
 ceimbat estadu altubagocuaç , aimbat
 naijago , eureen dantza loiçac noc jaso
 euquiteco. Au gaiti esatendira chito
 guaza asco sacerdote Jaunac , ta re-
 ligiosuac gaiti. *Auguin davena....onan*
*ibili dana.....an izan elzana.....*Onaco
 guzurrac laster sinistuten dira Elei-
 sa guizonen contra. Ta lasterrago za-
 balduten dira. Norhait inos icusi ba-
 davee, gauza guichi baten descuide-
 etan , aoric aora gueitubaz zabaldu-
 ten da bertati. Ezda bada sinistu-
 ten , Abade teguija , ta Praile te-
 guija juaten diriala piestetara , edo
 eguiten daveela dantzan , gentiac e-
 san gura leusquegun moduban. Ezda
 guichiago bere Euscal errijetan, ez Es-

170

paina guztian.

¿Bada, sinistuco dan inoe, Sacerdote bat, (ta oraindino ezainago Religioso bat) bere estadu altubaren, Santubaren, ta garbijaren lot-sarijan, ta ordiaco Sacramentubaren desondraan ibilico dala piestetan, ta dantzeetan? ¿Ez eguitia, eze icustia bere Eleisiac eurai pena andijaquin eragotzita daucan olgueeta impameetan? ¿Jaungoicucac bere echia zaintuteco esleidu dituban guizonac? ¿Pecatarijagaz Jaungoicucaren arteco Baqueguinac? ¿Jesus gneure Salvadore maitia, ta garbija Ceruti eratsita, egunian egunian escubetan daravileenac? Altara gainian guztioen osasuna gaiti, Aita Beticuari Bildots Garbija esquintzen deutseenac? ¿Sacerdote Jaunac? ¿Oneec ibilico di-

riala , piesteetan , erromedijetan, ta
saraubeetan nesca artian , ta mutil
artian erdi-comico eguinda olgueetan?
Ezda errez sinistuten.

Baina badago Abaderic, edo Prai-
leric , ain diabrubac itsuturic , edo
ez jaquinic , esaten jaco: trago min-
gocha arimiari emoten deutsalara, doi-
an bacoedian. Eracuslen esanian, pe-
catu mortala eguiten davela, doian
bachian , juatia bera gaiti, ta alaco
piesta desonestuba berarijaz icustia
gaiti. Naasteco dantzaac berarijaz
icustia , ta arei beguira egotia bere,
eragotzita dago aparteco leguiagaz,
Eleisa-guizonai, pecatu mortalaren be-
ian , dinue Eraculac. ¿ Sinistuco ete
dau au alaco Eleisa-guizonac , des-
cuiduan inor bada, onan dana? Jazo
leiteque , guztiz itsututa egotia, edo

chito guichi jaquina izatia.

Bada Eleisaco Concilijo, ta Eracusla guztien dotrinia da. Elesiaren bostgarren guizaalditi asita, andi Trentoco Concilijora guiao asco icenteetan ditu Benedicto XIV (1). Eleisa-guizonai naasteco dantceetara juatia, ta icustia bere, pena andijeon beian eragozten deutseenac. Eleisiaren neurgarri, edo Canon, ta Congregacinoe sagraducuarien ordena asco bere icenteetan ditu Aita Santubac berac (2); ceintzubetan eragozten jacuen Eleisa-guizonai, ez bacarric alaco lecubetan dantzan egui-

(1) *Sinod. Dioces. lib. 15. c. 10.* (2).
Instrut. 37. et 76.

tia, ez bada baita besteen naasteco dantzia berarijaz icustia bere, pecatu mortalaren beeco agundutzat. Natal Alexandroc dino: pecatu mortala eguiten daveela Eleisa-guizonac, alaco olgueeta naastauti apartectan ezdirianian (1). Bederatzi Concilijoren esanac imiten ditu Eracusliac berac, nun aguridan Eleisiaren Agunduba arguiro. San Antoninoc pecatu mortalaren beian eragozten deutseez Eleisa guizonai alaco dantzaac, dino Benedicto XIV. Baita San Carlos Milango Obispo Jaunac bere. San Francisco Salesec eragotzi eutsezan: Elei-

1. D. gilde sh : 1011 .p. moT (1)

(1) *Teolg. Dom. et Mor. l. 2. Sacram. Ord. c. 5. Reg. 5.*

174

saco opicijuac ez eguitiaren beiañ,
 Antoinec beste aibeste dino (1) San
 Buenabenturagañ. Santo Tomasec beste
 aibeste dino (2). ¿Baina cetaraco
 da cassetia? Eguija topau guña da-
 venac, iracurri beguiz Benedicto XIV.
 Sinodo Diocesana, ta Instrucinoiaç, er-
 dera, ta latin guztien escubetan da-
 vizanac. An topauco dau, ezetara bere
 ezdala libreetan pecatu mortaleti, be-
 rarijaz piestetara, ta dantcetara ol-
 gueetara doian Abadia, ez Prailia.

Ta esaten badau inoc, leen ez
 arren, orain usetan dala. Ta ezda-

—

(1) Tom. 4. trat : de oblig. C. 1.
 et tom. 5. de pœnit. c. 3. a. 3. (2)
 In sai.

la pecatu Abadiac, eta Prailiac alan
 ibiltia. Trentoco Concilijuac declarauta,
 ta agiinduta dauca (1); Abadiac, eta
 Prailiac piestetara, ta dantzetara ez jua-
 teco; leenago Elisiac, ta Concilijuac a-
 giundu dituben ordenac gordetaco; ta,
 usadijuaren, edo oituraren achâquijac
 ezdaguijeela balijo legue onen contra...
 Ta Obispo Jaunai agiinduten deutsee
 Concilijuac pecatu mortalaren beian, di-
 no Benedicto XIV. castigau daguijezala,
 leguiac agiinduten daven moduban,
 piesta, edo dantzetara juaten dirian
 Eleisa guizonac (2). Ezdago usadi-
 joric, ezdago achâquijaric, ezdago

LA 24. Sessio de la Santa Synodo, 1681.

1681. 24. Sessio de la Santa Synodo, 1681.

(1) Sess. 22. de Refrm. c. 1. (2) Ins-
 trut. 37.

176

urteerarić Eleisa guizonac berarijaz dantza, ta piestetara juateco. Atiac guztiać ichita dagoz. Ezdago Sino-dalic, Eleisa guizonai alaco escan-daluba parcatuten deutseenic. Alan icusten dogu, gorde bere eguiten di-riala legue Santu oneec Eleisa gui-zonen exemplu andijagaz. Descuiduan ezjaquin tristenbat nos bait descui-dau bada. Orduban dantzazaliac san-tipicau gura lituquee eureen nasaita-sunac, *Abadiac, ta Prailiac bere egui-ten daveela*, esanda.

2 Ta izangoda au achequiya ona dantzarijentzat, eurac juateco, ta ibil-teco, oidaviltzan moduban? Ez. Al-perric esango davee. Ezdeutsee ba-lijõ. Ez ditubee edertuco, ta guichi-tuco au lesanagaz eureen dantcetaco pecatu loijac. Baina gusto emon dai-

jeegun onei. Ta esandaigun, gura bada-
 abee: Abaderic, ta Praileric gueijeenac
 juaten gariala piesteetara, erromedije-
 etara, saraubeetara, ta naasteco dant-
 ceetara. ¿Cer daucagu onegaz? Nic
 lapurretan eguiten dodalaco; bidauac,
 ta maldecinoiac ezarten ditudalaco;
 logreruba nasalaco, edo pecatuban co-
 mulgucetan nasalaco: ¿esango cen-
 duque: gauza oneec eguitia ezdala
 pecatu? ¿Esango cenduque: Abadiac,
 eta Prailiac bere eguiten ditubeela, ta
 ceuc bere eguin zinaizala? Bada beste
 aimbeste. Abadiac, ta Prailiac pies-
 tetara, ta dantceetara juango balira
 bere; zubeac eguitia, esandan modu-
 ban, pecatu da. Abadeena, ta Prai-
 leena andijagua (juaten badira); bai-
 ta zubeena bere condeneetaco duina.
 Jazo leiteque, alaco Praileric, edo A-
 M

178

baderic bada , zeubeen dantceetaco, ta
 piesteetaco pecatubeetati zubei absol-
 vidutzatco bat , edo ascatutzaco bat
 compesinoian erreztu eguitia : ta, pe-
 catuco ocasinoe jaquin orretan zubei
 ibiltan istia. Baita jazo leiteque, (ta
 erremedijo bagaric jazoco da , peni-
 tencia , eguijazcua eguiten ez bada)
 areec , eta zubei , compesore, ta pe-
 nitente guztioa alcarregaz impernucio
 dantzara jutatia bere. Au da, alaco
 guztia Espiritu Santubac esaten deut-
 scena : *Ducunt in bonis dies suos, et*
in puncto ad inferna descendunt. Esan-
 dacti aituco dozu: ez deusula ba-
 lio, Abadiac eta Prailiac bere jua-
 ten diriala esanac, ceubec dantza naas-
 taubeetan ibilteco.

§. V.

V. Piesteetara, ta dantzeetara juan arren; ezdot nic pecaturic eguiten.

Bostgarren lecuban piesta zaliac, edo dantzaarijac aguertuten dira beste urtenera bategaz, ta esaten davee: *Piesteetara, ta dantzeetara juan arren, ez-daveela pecaturic eguiten.* ¡Ai au gauza ederra da! ¡Dichosuac, eta zori-jonecuac alaco semiac, eta alabaac! ¡Oh, dantzari dantza, piestari piesta, erromedijari erromedija, biguirari biguira, ta sarauri sarau nesca, ta mutil, andra, ta guizon naaste gau, ta egun, oizabiltzan moduban, ibilita, pecaturic eguiten ez dozun, bedein-catuboc! ¡Lastimia, nortzue zarian

180

ez jaquitia ! Duda bagaric Eleisiae
 Altareetan iminico lituque, ango leen-
 go Santubai alde eraguinda, balequi
 nortzue dirian alaco gorputzezco Ain-
 guerubac, sutan sartuta, erreetan ez-
 dirianac; batsatzan ibilita, loituten
 ezdirianac; piquiagaz lò eguinda, garbi
 jaguiten dirianac. ; Lastimia ! Orraco
 dantzari Santu orreec, Piestazale be-
 deincatu orreec, ocasinoeric sutsu-
 beenetan eureen gustoz ibilita, pe-
 caturic beguiten ezdayeen orreec, gure
 ap-loisa galducuetati aimbeste picaer-
 dija entzun biarra. ; Oh, ce guichi
 jaquinac cirian San Anton bat, San
 Geronimo bat, San Agustin bat, Ar-
 senio bat, Paulo bat, Benito bat,
 Madalena bat, Pelagia bat, Tais bat,
 ta beste milla onaco ! Ez jaquinac,
 dinot, dantzarijen burlaz. Bada areec,

211

ocasinoeti igues eguinda , gorputzac
 ondo , ta sarri zurrauta, lua, ta jana,
 laburtuta , veguijac , ta sentidubac
 contu andi bategaz erabilita bere, ne-
 quez goitu zitubeen araguijaren ten-
 tacinoiac. Ta dantzarijac , ocasinoe-
 ric vitzijenian , ta sutsubeenian eu-
 reen guraz aibat onduen apainduta,
 janda , edanda , gau , ta egun naas-
 te ibilita , ezdavee pecaturic eguiten.

¿Cetaraguino diabrubic itsutu ete
 legui cristinauba ? Esaten jacue bada
 onei : Itsututa vitzi diriala. Gorput-
 za , ta odola euquitia asco dala. A-
 danen semia , edo alabia izatia asco
 dala : alaco ocasinioian bere guraz
 sartuta, pecatu eguin bagaric ez irau-
 teco. Ta, bere naiz, premina bagaric
 ocasinoc jaquinera juatia bera, dala pe-
 catu. Baina piesta zaleen concienci-

182

jaac oitura chaarren tintiagaz zeta-
 catuta dagozan leguez, Sacrilegijo bat,
 adulterijo bat, edo Aitagarri, ta A-
 magari bat osotu artian, beste cas-
 tidadiaren contraco desonestidade na-
 saija ez dauquee pecatutzat. Ta lotsa-
 rizco zatarquerija guztia eguin, ta e-
 raguinda, guero, esaten davee: ez-
 daveela, dantceetan pecaturic egui-
 ten. Onei jazoten jacue, guela estu-
 baten lutzaro oian daguean gaisuare-
 na. Guela guztia atsituta dago. Cam-
 poti sartuten dirianac, ezin egon dira
 atsa arren. Ta oian dagueanac, esaten
 dau: ez davela atsic sentiduten. Pi-
 esta zalen arimac milla pecatu mor-
 tal entzun, esan, icusi, pensau, nai-
 tu, eguin, ta eraguin ditubee dant-
 za, ta piesta orreetan eureen guraz.
 Beste guztia urrineti bere sentidu-

ten davee eureen pecatubeen atsta.
Ta eurac uste davee , Ainguerubac
baixen garbi dagozala. Ez daveela
pecaturic eguiten.

Onei esaten jacue ostera bere; ez-
daquijeela dotrinaric. Ezdauqueezala,
pecatu mortalac pecatu mortaltzat,
Ezda ascoc , venialtzat bere. Ezin
alan esaminaric eguin leguijeela. Ai-
tuten ezditubeen , ta aintzat ezdau-
queezan pecatubeen damuric artu ezin
leguijeela. Sarri compesau arren,
beinbere ondo compesetan ezdiriala,
Ta ondo compesau bere ezin leiteque-
zala , arian da , dotrinia icasi, peca-
tu mortalac aintzat artu, areequin gar-
batu , ta pecatuco ocasinoe urrecuai
isteeco asmo sendua artu artian. Com-
pesau beguijee oneec guztioe , bai
zaarrac , bai gaztiac , bai guizonac,

184

ta bai emacumiac orraceo piesteetaco,
 erromedijeetaco, biguireetaco, ta sa-
 raubeetaco dantceetan, ta ibilteetan,
 cer entzun daveen, cer icusi daveen,
 cer esan daveen, cer desiau daveen,
 cer eguin daveen, bestiai cer eraguin
 deutseen, cer eratso deutseen, ce go-
 gogaz, ce vorondategaz, ce carinogaz,
 ce arpegui eragaz; ta ceimbat bidar
 eguin, ta eraguin, esan, ta eratso,
 entzun, ta icusi, pensau, ta desiau,
 lecu emon, ta nai izan daveen eure-
 en vijotzian. Ta aguertuco da eureen
 conciencia. ¿Baina celacua? ¡Ah!
 Eurac bere lotsatuten ditubana. Or-
 taitino naico davee dantza zaliac, ta
 picstarijac, presco prescoric, ta mer-
 que merque sinistu daijegun, orraceo pies-
 tetan, erromedijeetan, biguireetan. ta
 saraubeetan, daviltzan moduban, ibili

arren, ez daveela pecaturic eguiten.
 ¡Eh! Zeubeen lagunai ori burloori
 Gueijago ez esatiarren,

§. VI.

*VI. Dantceetan ez ere Eleisaan
 bere pecatu eguin legui, naidavenac,
 Ara bere ez juan.*

Piesta zaleen seigarren argumen-
 tuba, edo urteeria da: Eleisaan bere
 naidavenac, pecatu eguin leguijala.
 Bada naasteco dantzara juan biar ez-
 bada, pecatueo ocasinoia dalaco. E-
 leisia bere pecatu eguiteco ocasinoia
 izan leiteque. Ta ara bere ez da juan
 biarco. Edo piesteetara bere bai, pe-
 catuco ocasinoia izan arren. Dantza-

186

raco libertadia gura leuquee, Eleisaan bere pecatu eguin leguijala, esanagaz.

Onei erantzuten jacue bapere pena bagaric : Eleisaan bere pecatu eguin leguijala. Baijetz, Luciperrec ceruban bere eguin euala pecatu. Ta guizonac , nai emacumiac Eleisaan bere eguin leguijala , echian bere bai, soluan bere bai, altaraan bere bai, edo cein lecutan vitzi dan artian. Baita illten daguanian bere gura badan, egingo dan pecatu. ¿Ta cer daucagu onegaz? ¿Au eguija izan arren, lecu guztiac dira bardinac, pecatu eguiteco? Nun nai gaixotu leitequee. ¿Baina, sequera dunagaz lò eguiten davena , ala campo eche osasuntsu baten vitzi dana, leenago, ta sarrijago? Nun nai ill leiteque. ¿Baina , gaixo deunga bat sartu dan errijan, ala o-

sasun onecuan dago, illteco peligrueijago? Nun nai guizona galdu leiteque. Baina, lapurrez beteta daguan portuti doianac, ala bere eche onian daguanac, dauca galduteco arriscueijago? Nun nai jausi leiteque, Baina, calzada lauban, ala aldapa labanian, lasterrago? Oneen erespuestia ceubec daquizu.

Beste aimbeste, ta milla bidar gueijago dira bada Eleisia, ta naasteco dantcia, edo piestia, pecatu eguiteco. Eleisia, Jaungoicua ezaututeco, alabeetaco, ta amectaco, lecuba da. Naasteco dantzia, diabruba, munduba, ta araguija serbiduteco, lecuba, ta opicijua da. Eleisia, pecaturic eguin bagaric vitzi izateco; descuiduan eguiten bada, erremedijeetaco; arimac onduteco, ta cerura eruateco, lecu-

ba da. Piestia, ta dantzia, pecatubac gueituteuco, arimac condenectaco, ta impernuba beteteco, lecuba da. Eleisia Jaungoicuaren, Ainguerubeen, ta Santubeen lecu estimauba, ta santuba da. Naasteco dantzia, diabrubac, ta pecatarijac olguctaco, Jaungoicua ucatuteuco, santubac desondreetaco, ta Ceruba tristetuteuco, toqui apartecua, ta billatuba da. Eleisia arimac Cerura igoteco esquelaria da. Dantzia, arimac impernura jasteco, vidia da. Eleisaan bere pecatu eguin legui. Bai. Baina, Eleisaan euneti bic pecatu eguiten badavee; dantzati, ta piestati euneti iru echera juaten ez dira, pecatu eguin, edo eraguin bagaric. Ezda bada, cetan esan: *Eleisaan bere pecatu eguin legui, dantza loijeetera juateco.*

§. VII.

*VII. Gaztiac, cetan, edo atan ol-
gau biar davee.*

Zazpigarren lecuban dinue dant-
zaarijac: *Gaztiac cetan, edo atan ol-
gau biar daveela.* Verbeeta onec utse-
guite bi daucaz. Bata da: *Gaztiac*
cetan, edo atan olgau biar daveena.
Ezda au eguiija. Eguiija da, nos bait
olgucetia naturaleciac escatutén dave-
na. Baita, *cetan, edo atan olgau lei-
tequiana bere, bai zaarrac, ta bai*
gaztiac, bai Prailiac, ta Monjaac be-
re. Au esanda gueratu da leen. Baina
olgau biar dana; edo, gaztiac ol-
gau biar daveena, ez deuscu inoc e-

190

racusten. Ezdogu iracurten Jesucristo
 olgau zanic. Ez da Ama Virginia ol-
 gau zanic bere. Ezda San Juan Bau-
 tista olgau zanic bere. Santubac ez ci-
 rian ; dantzariac uste daveen modu-
 ban olgau. Ta inos olgau batzirian
 alan, ez Santu zirianian. Contuban
 jausi zirianeti aurrera, negar mingoch
 asco eguin even, alan olgau ciria-
 laco. Madalena bat, Maria egiciaca
 bat, San Agustin bat, San Andres
 Corsino bat, San Abertano bat, ta
 beste asco dira onen testigubac. Bau-
 tismo Santuban ez guenduban aguin-
 du olgueetia. Ezbada, mundubaren,
 araguijaren ta diabrubaren contra beti
 pelietia. Ezdeuscu Evangelijúac aguin-
 duten, olgueetaco. Ezbada, gau, ta
 egun contuban egoteco, arerijuac artu
 ez gaizan. Gueratu bagaric, oracinoia